



Kriseiluaren argipean

Jatorrizko izenburua: *Á lus do candil*

Egilea: Anxel Fole

Itzultzailea: Josemari Navascués

Argitaratze urtea: 2010

Literatura Unibertsala bilduma

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

MIKEL GARMENDIA

Frankismo betean eman zituen argitara (1953) Anxel Fole idazle galziarrak *Kriseiluaren argipean* izenburupean orain Jose Mari Navascués itzultzailearen eskutik euskaraz emanak heldu zaizkigun hamabost kontakizun laburrak.

Errealitatea adieraztea omen zuen helburu Folek liburuaren hitzaurre argigarri eta estimagarrian esaten zaigunez. Bai helburua betetzea ondo lortu ere. Landa giroko Galizako ahozko tradizioetatik abiatuak, magia, misterio eta naturaz gaindiko gertakariak osatutako giroak sortzen ditu, bere lurraldeko iruditeria bereziarekin.

Azaro batean kokatzen dizkigu Folek kontakizunok: "era polos derradeiros días do castañañal". Egundoko elurtea dela kausa, etxe handi eta zahar batean isolaturik uzten ditu Folek bere pertsonaiak. Itxialdiak iraun zuen bitartean jan eta dibertitu besterik ez zuten egin pertsonaiok. Otordu guztietatik afariak interesatzen zaizkio gehien Foleri, edo afalosteak hobeto esanda, orduantxe hartzen baitzuten protagonismo berezia ipuin edo kontakizunek: "as noites de inverno soio son boas para os tragos, para as meigas, para os lobos... E para quen escoita contos de medo sentido rombaldo vento".

Sutargia ez zen aski etxea argitzeko eta, hori horrela, kriseilua erabili behar, aspalditxo Galizako etxe guztietan izaten zen usain txarreko tramankulua.

Folek argi eta garbi adieraziko digu hiriko jende aberatsaren eta landa giroko langile txiroen arteko alde nabarmena, eta hori bi egoera hauen bitartez: hiriko aberatsek kirol gisa egiten dute ehiza eta bizibide gisa eta, bestetik, hiritarrek beraiei zerbitzu egiteko kontratatzen dituzte hotseinak eta ez nekazaritza-lanetarako.

Ahoz gora eta sutondoan kontatzeko istorioak, estilo soil eta aldi berean magikoan kontatuak, jakingarri, bitxikeria, errefrau eta halakoez josiak, irakurketa atsegina eragiten dutenak eta are atseginagoa kontakizunok entzulei bozgora irakurriz gero.